

AURREITZ

EUSKALERRIAN Jaurlaritzza degun ezkerro, uste izatekoa zan, besteak beste, Kulturaren alorrean aurrera-kuntzak ikusiko genituala. Eta ala gertatu ere da. Kon-kretuki, “Kriminalojia” deritzan Disziplinan.

Gaurko egunean, gai ortan, gauza berri aundiak ikus-ten ditugu egin dirala leku askotan. Gaurko eguneko Soziolojiak aurrerapen aundiak egin ditu, batez ere KRIMINALIDADEAREN iturriari buruz; eta gazteen kri-minalidaderari buruz okerrak zuzentzeko bidean —zea-ro zuzentzea lortzen ez bada ere, okerrak gutxitzeko beintzat—.

* * *

Ez da gaizki etorriko gaurko egunean, Euskalerrian bertan gauzak ikusten ditugun bezala ikusita. Eskerrak ematekoa da, benetan. Olako Liburuak ipintzen bait gaituzte Euskalerrian, mundu zabalean beste lekuetan gauzak dauden malla ta neurrian. Batikano II'ak gauza auek orrenbeste argitu dituan ezkerro.

* * *

Lenengoan, bere-betean, KARTZELATUEN Proble-ma ukitzen da: Problema beti ere garratza, bañan gaurko egunean, Euskalerrian garrantzi berezi bat izan dezakeana, Madrid'etik jaso bear ditugun transferen-tziakin gai ontan egin ditzakegun obekuntza ta oker-zuzentzeengatik.

Kartzelarekin lotu-loturik arkitzen bait degu munduan beste problema garratz-garratz bat ere: Kartzelaetako Geiegikerien Problema, Torturaen Problema, Tormentoaren Problema.

* * *

Ain zuzen Gogorkeriaren eta Kartzelaen gaiean Euskalerrian ba ditugu guk bi bultza-gaillu, gauza auek gogorazten dizkigutenak:

a) bata, Bizkai'ko Lege Zaarra, bere Lenengo Titulo'ko 12'gn. Legean; ala bait dio garbi-garbi: "A vizcaino no se dará TORMENTO»; eta

b) bestea, beti gogoan dauzkagun Ebanjelioak diotena Sam Mateo'ren 25'gn. Kapituloan: "Kartzelatua nengon, eta etziñaten bisitara etorri".

Bi testigantza, biok euskalduntasun eta kristautasun aundikoak, gaurko eguneko "Kriminolojia" bir-aztertzeraren beartzen gaituztenak...

* * *

Izan ere, Ingalaterra'ko Legedietan "Habeas corpus"en Instituzio famatua azaldu baño gizaldi ta erdi leenago an zegoen Bizkai'ko Lege Zaarrea (1526) ezkutaturik, "Habeas corpus" aren mami guztia bere baitan duan Legea ("Título Primero...Ley XII. Tormento ni amenaza no se pueda dar a Vizcayno.—Otrosí dixeron que habían de fuero, e costumbre, e franqueza, e libertad, que sobre delito ni maleficio alguno, público ni privado, grande ni liviano, e de cualquier calidad y gravedad que sea, agora sea tal que el Juez de Oficio pueda proceder, agora non —; que a Vizcayno alguno no se dé tormento alguno, ni amenaza de tormento, directe ni indirecte, en Vizcaya ni fuera de ella, en parte alguna".

Olaxe insistentzi guztiarekin.

* * *

Bigarren zatian, GAZTETXOEN DELITUKERIA aipatzen du gure liburuak; eta, Batikano II'aren ondoren etorri diran "moralistak" aipatzen ditu bereziki, gure A. Beristain'ek, delituaren imajiña bir-examiniatuaz moralista berriak eman duten pausu ederragatik,

Jesus'ek berak pekatariantzat zuan erruki aundia gogoratuaz; errukizko postura ortan asko seinalatu bait ziran oso "gureak" izendako Santu batzuek: Loiola'ko Ignazio bat-eta.

Batikano II'ak erakutsi digun arau eta muestrari begiratuaz, pekatuari eta "Pekatuaren berkamenari buruzko" denbora bateko jantseniotarren imajiña gogorki arbuiatzen eta baztartzen bait du gure A. Beristain'ek, gure Errian, batez ere A. San Ignazio'ren seme AA. Jesuitak beti egin duten bezala.

Irugarren zatian DROGAREN Problema ukitzen da, bete-betean; eta iru alderditatik ukitu ere: alderdi historikotik, alderdi ekonomikotik, eta alderdi politikotik.

* * *

Bear bada, utsane bat arkitzen diogu gure Liburuari: Loiola'ko Ignazio Santuaren aipamen eder baten utsunea; bere *Exercicios Espirituales* — "Gogo-Iñargunak" — aipatuaz, goraiatuaz, — liburu txiki ortan Loiola'ko Santuak pekatariarentzako azaltzen dituan sentimen ederrai buruz —; "Gogo Jardunetaz" gañera bere beste, Jesus'en Lagundiko *Constituciones* diralako Liburuan ere azaltzen bait ditu Santuak olako sentimen ederrak.

Eta berdin baita, "gaztetxoen delinkuentziaz" mintzatzean, aipa bait zitzakean, baita, Jesuitak beren Ikastolaetan egiten duten lan biozpera benetan ederra.

* * *

Eta utsune-bide artan bertan jarraituaz, — Kartzelatuen bidetik irten gabe — aipatu bait zitekean gure Kartzelaetako Kapellau Jaunen lantegi goragarria, A. Beristain'ek ederki egin duan bezela, konkretuki azken-aldi ontan orrenbeste saiatu dan, Donostia'ko Loiola'ko D. Jose Maria Arrieta.

Eta, bear bada, zer esanik ez, beste Apaiz euskaldun batek — azpeitiar D. Ignazio Azpiazu batek — Argentina'ko Kartzelaetan, ango Kartzelatuen alde egin duan lan bikain eta arrigarria.

Dana, munduko KARTZELATU gaixoen mendetan.

* * *

Eta gai guzti oietan aipagarri bait dira, Euskalerriko LEGE ZAARRETAN agertzen diran, eta Kriminalojiari ta Kratzelari dagozkion zeinbait gauza jakingarri, nik nere lantxo batean aipatu izan ditudanak. (Ikus, "Mensajero'n" argitaldutako A. Beristain'en "Estudios Vascos de Criminologia" — 1962, pág. 169 — eta an nere Artikulo "El Derecho Penal en el Fuero" (Fuentes); eta Ataun'go "Zelemín ta Zelemon", eta Oyarzun'go "Zereon" legea.

* * *

Eta berdín aipa bait liteke Kartzelatuen kontuan Kanpion aundiaren ipui ukigarri, "El bardo de Itzaltzu" bere justizi aundiko bañan erruki aundiagoko amaierarekin.

* * *

Izan ere, gure Folklore jatorrak ipui ukigarri ortan azaltzen bait du, alde batetik, krimenarentzako "Justizi-sentzua", eta, bestetik, krimenzallearenganako erruki ta zentzu-gizabera. Gartxot gogorki zatitua, eta Gartxot zeruko uso txuriak bizirik "mantendua". Gaurko Kriminolojiarentzat eredu ederra.

Manuel LEKUONA'K